



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko maiatzaren 4an

34 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Erabakia. Horren bidez, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espedienteari buruzko ikerketa batzordearen irizpenari buruzko ondorioak onetsi dira (2. or.).
- Frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espedienteari buruzko ikerketa batzordearen irizpenaren eztabaida dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak bazterturiko boto partikularrak (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleek euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan. Atzera bidalitako mozioa (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Etxebizitza eta birgaitzearen arloetako aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

#### G SAILA:

##### **Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 1999ko apirilaren 21ekoa. Haren bidez, Iruñeko entzutegia izandako eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzen dira: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza tekniko eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa (15. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Erabakia. Horren bidez, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordearen irizpenari buruzko ondorioak onetsi dira**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1999ko apirilaren 15ean, hurrengo erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Erabakia. Horren bidez, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordearen irizpenari buruzko ondorioak onetsi dira". Biltzarreko Erregelamenduko 61.6 artikulua ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren Erabakia. Horren bidez, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordearen irizpenari buruzko ondorioak onetsi dira**

Nafarroako Osoko Bilkurak 1998ko azaroaren 25ean hala erabakita, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordea eratu zen; 1998ko abenduaren 9an, eta Bozerramaileen Batzarrak hala erabaki ondoren, Biltzarreko Mahaiak ikerketa batzordearen antolamendua eta jardura agintzen zuten arauak eman zituen. Hori dena Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 61. artikulua ezarritakoaren arabera egin zen.

Batzordea 1999ko otsailaren 2an eratu zen, eta José Javier Sánchez Turrillas Jaun Txit Argia hautatu zuen lehendakari. Ondoren, José Javier

Sánchez Turrillas Jaun Txit Argiak kargua utzi ondotik, batzordeak Carlos Cristóbal García Jaun Txit Argia hautatu zuen lehendakari, martxoaren 4an.

Otsailaren 2, 5, 9, 15 eta 17an eginiko bilerekin, batzordeak lan plana eztabaidatu eta zenbait erabaki hartu zituen: erabaki batzuk batzordearen jarduketan antolamenduari buruzkoak izan ziren eta batzordeak izan behar zuen aholkularitzari buruzkoak; besteak, aldiz, Nafarroako Gobernuari zenbait informazio eta agiri eskatzei buruzkoak; halaber, beste hau ere erabaki zen: Nafarroako Gobernuari eskatzea batzordearen esku jar zezala ikertu beharreko lehiaketaren espeditaria.

Otsailaren 18an hasi ziren deitutako pertsonen eta haien laguntzaileen agerraldiak –zenbaitetan, agertu behar izan dutenak laguntzaileekin etorri dira—. Agerraldiak hurrengo egunotan izan ziren: otsailaren 19, 22, 23, 24, 26an eta martxoaren 11n. Batzordeak deitutako pertsona guztiak etorri ziren agerraldietara; guztira, 26 izan dira batzordeari informazioa eman diotenak.

Guztira, batzordeak ondoko egunotan egin dituzten bilerak: otsailaren 2, 5, 9, 15, 17, 18, 19, 22, 23, 24 eta 26ean eta martxoaren 4, 11, 17, 24, 26, 29 eta 30ean.

Azkenik, batzordeak, martxoaren 26an, ondorioen oinarriko proiektu bat egin zuen; proiektu hori, non Parlamentuko Taldeen proposamenak jaso baitziren, martxoaren 26, 29 eta 30ean eztabaidatu eta bozkatu zen, batzordearen ondorioak jaso dituen irizpen hau onestearren.

**I.- AURREKARIAK.**

Irailaren 5eko 1388/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateak frekuentzia gehiago izatea emisoreen zeharkako kudeaketarako.

1997ko azaroaren 28an, Herrilan Kontseilariak 5121/1997 Foru Agindua eman zuen, zeinaren bidez frekuentzia modulatu uhin metrikoen bidezko irrati zerbitzua kudeatzeko kontzesio administratiboen kontratazio espedientea onetsi baitzen. Foru agindu horretan zehazten denez, lehiaketa izanen da adjudikazio sistema.

Adjudikazio prozedura 2343/1998 Foru Agindutik 2349/1998 Foru Agindura doazen foru aginduekin amaitu zen; horien bidez, Iruña, Tuter, Lizarra eta Lesakako emisoreak adjudikatu ziren, eta beste kontzesioak ez zirela emanen ebatzi zen.

Lehiaketan parte hartu zuten zenbait enpresak, izan ziren emaitzen ondorioz, errekursoak jarri zituzten, eta hala dago jasota espedientean; halaber, Parlamentuko Taldeek zenbait eskaera egin zuten objektiboki adieraz zitezen adjudikazioak egiterakoan jarraitutako irizpideak edo arrazoiak. 1998ko irailaren 11n, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak eta Kontseilariak Biltzarrean agerraldia egin zuten, Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, adjudikazio prozesuan jarraitutako sistema argitzeko eta balorazio irizpideak arrazoitzeko.

Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak Kontuen Ganbarari txostena eskatu zion adieraz zezan jarraitutako prozedura zuzenbidearekin bat ote zetorren.

Kontuen Ganbarak azterketari ekin, eta espediente administratibo batean eskumenik ez zuela erabaki zuen; horrek Bozeramaile Batzarra behartu zuen hasierako txosten eskaera berraztertzea.

Irailaren 17an, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak mozio bat aurkeztu zuen Osoko Bilkuran, eta mozio hori onetsi egin zen: 29 boto izan ziren alde, 17 kontra eta abstentziorik ez zen izan. Horrela, ondoko ebazpena onetsi zen: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz duen FMko irrati lizentziak esleitzeko prozesua, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak egindakoa, geldiaraz dezan, Kontuen Ganbarak horri buruz egiten duen txostena Parlamentu honek ezagutu arte".

Administrazio prozesuaren azterketa ez zuela egiten zioen Kontuen Ganbarako txostena jaso, eta ikusita Gobernuaren pasibotasuna eta Parlamentuak prozesua geldiarazteko egin zion eskaera betetzeko borondatearik eza, 1998ko azaroaren 25ean "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak mozio bat aurkeztu zuen Osoko Bilkuran, zeinaren bitartez ikerketa batzordea sortzea eskatzen baitzen modu honetan: "Batzordearen xedea izanen da azaroaren 10eko

336/1997 Foru Dekretuaren ondoriozko egintza administratibo guztiak sakon aztertu eta berrikus-tea. Ikertu nahi dena da gai honetan eginiko planteamenduan, aurreikuspenetan eta erregulazioan baloraziorik sartu edo ezarri al den, eta, horiek, espezifikoki baldintzatu ahal izan dituzten aipaturako foru dekretua sorburu duten kontzesio administratiboak".

Eztabaidaren emaitza honakoa izan zen: 29 boto alde, 16 kontra eta abstentziorik ez.

Batzordea, Parlamentuko Talde bakoitzeko bi ordezkari zituela, 1999ko otsailaren 2an eratu zen, eta lan bilerekin hasi eta ikerketa plana onetsi zuen.

## II. AURRETIAZKO KONTSIDERAZIOAK

Azaroaren 28ko 5121/1997 Foru Aginduaren bidez, baldintza administratibo berezien eta ustiapenaren orriak argitaratu ziren. Azaroaren 20ko 177/1998 Foru Aginduaren bidez, kontratazio mahaia eratu zen lehiaketara aurkeztutako eskaintzak baloratzeko. Kontratazio mahaiaren eginkizunak Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 89.1 artikulua ezartzen dituenak dira; hona hemen: "Kontratazio mahaiak, alde aurretik, behar de epean eta moduan aurkeztutako agiriak kalifikatuko ditu, lehiakideek aurkeztutako proposamenak jendaurrean irekiko, eta, azkenik, kontratuaren adjudikazioa egin behar duen kontratazio organoari igorriko dizkio proposamen horiek; betiere, kontratazio organoari igorritako proposamenekin batera, baldintza administratibo berezien orriak ezarritako irizpideen ponderazioa ere igorriko da".

Mahaiak administrazio agiriak zituzten gutunazalak ireki eta, aztertu ondoren, kalifikatu egin zituen eta baita zuzenketak proposatu ere; berdin egin zuen proposamen teknikoaren gutunazalekin ere.

Kontratazio mahaiak 1998ko ekainaren 18an egin zuen balorazio akta, ondorioak barne; akta horretan, mahaiko kideek, Iruñeko FM emisoreetarako eskaintzak baloratzerakoan (Iruña 98.3 eta Iruña 105.4), honako banaketa egitea erabaki zuten:

a) Zuzenean kuantifikatu daitezkeen gaien balorazioa.

b) Baldintza administratibo berezien orriak ezarritako gainontzeko irizpideen balorazioa.

Ondokoak jaso ziren a) idazatian: bertan egindako programak (25 puntu, gehienez), baldintza administratibo berezien orriak ezarritako tarteen arabera; gutxienezko ordutegiaren gain egiten dire-

nak (5 puntu); euskararen erabilpena (5 puntu), baldintza administratibo berezien orriak ezarritako tarteen arabera, eta, euskararen erabilpena osoa ez denean, irradi-emisioen % 30 euskaraz izatea portzentaia adierazgarritzat jota; aniztasuna eta pertsona gehiago sartzeko aukera (10 puntu).

b) idaztiari buruz, baldintza administratibo berezien orriak ezarritako gainontzeko irizpideei dagokienez (programazioaren izaera informatibo, kultural edo hezkuntza izaera, eta, bereziki, tokian tokioa edo eskualdekoa denean; Foru Komunitatearen balio kultural, historiko eta sozialen sustapena; bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasuna, eta proiektuaren bideragarritasun teknikoa), kontratazio mahaiak zera esan zuen: "ez dira balorazio kuantitatibo zehatza egiteko modukoak". Horrela, bada, kontratazio mahaiak eskaintzak hoberenaz aurrera sailkatu, eta antzekoak zirenak multzotan jarri zituen; betiere, gutxi gora-beherako balioak hartu ziren oinarri.

Mahaiaren ondorioetan ezarri zenez, Iruñeko kasuan, eskaintzarik hoberenak hauek ziren: Iruñeko Komunikabideak, Medios de Comunicación 21 eta Universidad de Navarra. Esanenez, hiru eskaintzen parekotasuna ikusita, proposatu zena izan zen hiru proposamenak hartu eta hurrengo atal hauetako datuak berariaz konparatzea: programazioaren izaera, Foru Komunitatearen balio kultural, historiko eta sozialen sustapena, bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasuna, eta bideragarritasun teknikoa.

Datu horiek ere igorri ziren, balio erlatibo horien puntuaziorik gabe, hiru eskaintzak konparatu ahal izateko.

1998ko uztailaren 1ean, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak txosten bat helarazi zion Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariari, non mahaiaren balorazioak adierazten baitziren eta baita puntuazio tarte bat proposatu ere eranskin batean (2. eranskina). "Honen guztiaren ondorioz, adjudikazioa hurrengo hiru enpresa hauetako biri egin beharko zaie: Iruñeko Komunikabideak, Medios de Comunicación 21 eta Universidad de Navarra; betiere, azken erabakia hartzeko, 2. eranskinean adierazitako irizpideen ponderazioa hartuko da oinarritzat eta, baita ere, 2. eranskineko irizpideei jaun horrek behin betiko emandako puntuazioa.

Uztailaren 6an, Kontseilariak lehiaketaren emaitzaren berri eman zion Gobernuari, eta 2343/1998 Foru Aginduaren bidez emisoreak adjudikatu zituen.

### III.- PROZEDURARI BURUZ AIPATZEKOAK.

#### 1.- Mahaiaren jardunari buruz

**1.1.-** Aztertu den lehiaketaren modukoak baloratzeko, ez da kontratazio mahairik egokiena, mahaia osatzen zutenek prestakuntza bereziagoa behar baitzuten alderdi teknikoak eta ekonomikoak kuantifikatzeko; eskasia hori, ordea, ez zen osatu kanpoko txosten teknikoekin edota Administrazioekin.

Kontratazio mahaiaren bi kide ez ziren agertu eztabaida eta bilera gehienetara, eta horietako bat kontu-hartzailea zen; horrenbestez, lau kidek osatu zuten mahaia.

**1.2.-** Programazioaren parrilla orokorra falta da; hori, mahaiko idazkariak egin zuen, eta irratien programazioa (hezkuntza programen iraupena, etab.) baloratzeko datu-euskarria izan zen.

**1.3.-** Mahaiaren balorazioetan, kasu batzuetan, programazioaren iraupena zela-eta puntuazioa hainbanatu egiten zen; beste batzuetan, aldiz, ez.

**1.4.-** Programazioari dagokionez, mahaiak balorazio bat egin zuen, enpresek aurkeztutako programazio-parrillaren ezaugarrien arabera, eta kontratazio mahaiak kuantifikatu zuen.

Eginiko azterlanen arabera eta batzorde honen aurrean agertu ziren kontratazio mahaiko kideak esandakoaren arabera, zera zehaztu da: zuzendari nagusiak ez zituela Iruñeko Komunikabideak enpresak aurkeztutako programazio-parrillaren ezaugarri batzuk baloratu; hain zuzen ere, haur eta gazteentzako programazioaren ezaugarriak (partehartzea, sorkuntza, jolasak, animazioak, hezkuntza-zentroekin elkarlana, eta baita ere unibertsitate-zentroekin eta gazteen elkarteekin); programazio horrek 240 minutu egiten zuen (programazioaren % 16,60).

Haur eta gazteentzako programazioa baloratu izan balitz, zuzendari nagusiak enpresa horri baloratutakoak % 60 izanen ziren % 44 izan beharrean; horrenbestez, aipatutako enpresa horri emandako balorazioa erabat alda zitekeen eta baita, segur aski, adjudikazio hurrenkeraren ere.

#### 1.5.- Bideragarritasun ekonomikoa.

1.5.1. Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 20. artikuluko k) letrak, eta, baita ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legearen 8. artikuluko zera ezartzen dute: "Lege honen arabera behar bezala sailkaturik ez egotea, hala behar

balitz, edo ez frogatzea nahiko gaitasun ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalik ".

Hori horrela, zera ondorioztatzen da:

a) Gaitasuna eta bideragarritasuna ez direla kontzeptu berdinak.

b) Hiru enpresa horiei bideragarritasun ekonomikoan 0 puntu eman bazaie, legeak kontratua egitea debekatzen duela.

1.5.2.-Baldintza administratibo berezien orrian atal horri 15 puntu ematen zaizkio. Ez dago argi baremoaren zer ehuneko emanen zaion atal bakoitzari (bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasuna). Geroztik, zuzendari nagusiak, agerraldia egin zuenean, 6 eta 9 zirela esan zuen. Hala ere, zuzendari nagusiak kontratazio organoari proposatu zion tarteak 8-10 puntuazioa ematen die hiru enpresei.

Hiru enpresa horiek 0 puntu baldin bazuten bideragarritasun ekonomikoan, ezin zuten 10 puntu izan lanbide gaitasunean; hori zela eta, zuzendari nagusiak hau erantzun zuen: "orduak, 5 eta 10 artean izanen zen". Geroztik emaniko azalpenak dira, eta ez dute konbentzitzeko balio.

1.5.3.- Abalekin ere arauz kanpo jokatu da: abal bakar batekin bi irrati edo gehiagori utzi zitzairen lehiaketan parte hartzen, eta, aldiz, beste batzuk abal bat baino gehiago aurkeztu zuten.

1.5.4.- Bideragarritasun ekonomikoa baloratzerakoan, izan ziren proposamenak ez ziren berdin kontuan hartu: publizitatea eta babes-emaileak finantza-iturri zituztenak onartu ziren, eta, aldiz, ez zen kontuan hartu beste aukera bat: harpidedunak eta publizitatea.

Bideragarritasun ekonomikoari buruzko formula guztiak teorikoak ziren, eta baloratzerakoan ez zen kontuan hartu badela enpresa sendorik, esperientzia eta enpresa-proiektuen bideragarritasuna frogatua duenik, hala nola, SER edo COPE. Horiei, besteekin konparatuta, zuzenak ez ziren balorazioak egin zitzaizkien; izan ere, enpresa berriak egiteko proiektu soilak baino ez direnekin konparatuta edo sektorean esperientzia gabekoak diren enpresekin konparatuta, ez dira balorazio zuzenak.

#### 1.6.- Bideragarritasun teknikoa.

Ez ziren kontuan hartu irrati-emisoreen irrati-loturetan erabilitako Mhz-ak: Universidad de Navarrak, bere proposamenean, 830-960 Mhz-ko banda aurkeztu zuen, eta beste guztiak 1.600 Mhz-koa, hori baita egun baimena duena. Horrek ez zuen inongo eraginik izan.

#### 1.7.- Lanbide gaitasuna.

Lanbide gaitasunari dagokionez, zuzendari nagusiak ez zion jakinarazi kontratazio organoari mahaiaren balorazio aktan Universidad de Navarra-ri buruz agertzen zena: "oreka pixka bat falta zaio"; hala ere, hiru enpresei baremazio bera egin zitzairen: 8-10 puntu-tartea ezarri zitzairen, hain zuzen.

#### 1.8.- Akta.

Balorazio aktak, txostenean jasotzen zuenez, nabarmen ezberdinak dira Universidad de Navarra, Iruñeko Komunikabideak eta Medios de Comunicación 21-k aurkeztutako agiriak; azken horrek bankuko abalak besterik ez ditu aurkeztu. Hala eta guztiz ere, hirurei 0na puntu eman zaie.

#### 1.9.- Aldeei espediente eskura jartzea.

Aldeek espedientea behar zuten, espediente hori ezagutu eta kontra egin nahi ziotenari kontra egin ahal izateko, eta, aldeei, aipatutako espedientea berandu jarri zitzairen eskura.

1.10.- Bideragarritasun ekonomiko eta teknikoari buruzko ondorioak.

Balorazio kuantitatibo zehatza egiteko modukoak ez diren adjudikazio irizpideei buruz –hala nola, bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa– Kontratazio mahaiak, proiektuek zer nolako eduki dituzten azaltzerakoan, oinarri hartu ditu Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiaren iritzia eta baita Telekomunikazio Zerbitzuburuaren ere.

Horrela esan dute batzordearen aurrean bai Telekomunikazio Zerbitzuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Ataleko buruak bai Lehendakaritza eta Barne Departamentuko idazkari teknikoak: biak kontratazio mahaiko kide.

### 2.- Zuzendari nagusiaren jokabideari buruzkoak.

2.1.- Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak, zeina kontratazio mahaiaren burua ere bazen, eta Telekomunikazio Zerbitzuburuak ezarri zituzten baldintza administratibo berezien orrian adjudikaziorako irizpideak eta, baita ere, horietako bakoitzaren gehinezko puntuazioa.

Baldintza orri horiek ezartzeko Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiaren eta Telekomunikazio Zerbitzuburuak ez zuten inongo aholku edo txostenik eskatu.

#### 2.2.- Txostenak.

Mahaiaren aburuz, adjudikazio irizpide batzuk balorazio kuantitatibo zehatza egiteko modukoak

ez baziren ere, kontratazio mahaiak eta organoak ez zuten inongo laguntza edo txosten espezializaturik eskatu prozedura objektiboa izan zedin

Aipatutako balorazioa Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak egin zuen, prozedura objektiboa egiteko inongo aholku edo txosten espezializaturik eskatu gabe. Telekomunikazio Zerbitziburua besterik ez zuen kontsultatu.

### **2.3.- Balorazioak.**

#### **2.3.1.- Programazioa.**

Mahaiaren balorazio aktak honela zioen hitzez hitz: "halaber, ehuneko altuak edo oso altuak dituzte Foru Komunitatearen balio kultural edo historikoak (bereziki, Universidad de Navarra-k) eta sozialak (Iruñeko Komunikabideak-ek eta Medios de Comunicación 21-k) sustatzeko programazioari dagokionez".

Ordea, zuzendari nagusiaren txostenean, hauxe esaten zen: "halaber, ehuneko altuak edo oso altuak dituzte foru komunitatearen balio kultural edo historikoak (bereziki, Universidad de Navarra-k) eta sozialak (Medios de Comunicación 21-k, eta Iruñeko Komunikabideak-ek gutxiago) sustatzeko programazioari dagokionez".

Zuzendari nagusiak "gutxiago" hitza sartu zuen, eta balorazio aktak ez zuen hitz hori jasotzen; horrela, Universidad de Navarra-ri eta Medios de Comunicación 21-ri 8-10 puntu-tartearekin baloratu zitzaizen eta Iruñeko Komunikabideak-i 7-9 puntu-tartearekin. Gure ustez, balorazio horretarako ez dago arrazoi objektiborik.

#### **2.3.2. Bideragarritasun ekonomikoa.**

Bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasunaren atalean, zuzendari nagusiak VAN eta TIR metodoak erabili zirela esan zuen (errentagarritasuna neurtzeko erabiltzen dira), baina azterlan horiek ez dira espedientean agertzen eta batzordea ere ez dira ekarri; dirudienez, galdu egin dira. Finean, kontratazio organoak zero eman zien lehenengo taldeko hiru proiektuei eta ez zituen baloratu bakoitzaren ezaugarriak.

Deigarria da, adibidez, zero puntu ematea bideragarritasun ekonomikoan 10 urte martxan daramatzan proiektu bati, edo puntu berdina ematea negoziaren bideragarritasunari buruzko informazioa ematen dutenei eta horrelakorik "inondik inora" ez dutenei.

#### **2.3.3. Lanbide gaitasuna.**

Mahaiaren balorazio aktak hauxe dio: "Bestalde, lanbide gaitasunari dagokionez, hiru eskaintzak dira egokiak lan taldearen kopurua eta kali-

tatearen aldetik; hala ere, Universidad de Navarra-ri duen lan taldeari oreka pixka bat falta zaio: unibertsitateko irakasleak hartzen ditu oinarri."

Hala eta guztiz ere, zuzendari nagusiaren txostenak honela dio: "Bestalde, lanbide gaitasunari dagokionez, hiru eskaintzak dira egokiak lan taldearen kopurua eta kalitatearen aldetik; hala ere, Universidad de Navarra unibertsitateko irakasleak oinarri hartzen dituen lan taldea du, eta Medios de Comunicación 21-k du lan talderik osatua".

Zuzendari nagusiak eginiko txostenean, "oreka pixka bat falta zaio" ez du aipatzen; horrenbestez, 8-10 puntu-tartea, denentzat bera, proposatu ahal izan zuen zuzendari nagusiak.

#### **2.3.4.- Bideragarritasun teknikoa.**

Proiektuaren bideragarritasun teknikoari dagokionez, oso gai espezializatua izateagatik konplexua eta zaila izan arren aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ez zen gai horretan aditua den inoren informazio edo inongo aholkurik eskatu.

Grabazio estudioen ekipamendua besterik ez zen baloratu, emisiorako elementuak ezertarako kontuan hartu gabe; espedientean ez da azaltzen edo arrazoitzen adjudikazio irizpide hori baloratzeko modu berezi hori.

### **2.4.- Proposamenaren arrazoitze falta.**

Kontratazio mahaiaren balorazio aktak eta Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiaren txostenak ez dute lotura objektibo eta arrazoi-turik, eta zuzendari nagusiak, 2. eranskinean, kontratazio organoari baremazio proposamen bat egin zion, mahaiak balorazio kuantitatiboa egiteko modukoak ez ziren gaiei buruzkoa, hain zuzen.

2. eranskina irizpide pertsonalak erabiliz egin zen, eta ez zen behar adina arrazoitu kontratazio mahaiaren balorazio aktak esaten zuena kontuan hartuta.

Enpresa bakoitzari esleitutako balioak, ez dute enpresa horiek ekarritako agirien arabera justifikazio arrazoiturik izan.

Kuantifika ezin daitezkeen gaiei dagokienez, prozesu guztiaren objektibotasuna ez da inolaz ere justifikatu ezta arrazoitu ere.

## **3. Kontseilariaren jokabideari buruz.**

**3.1.-** Kontseilariak dionez, mahaiaren esku utzi zuen balorazioa, baina ez zuen horren jarraipenik egin, eta kontu-hartzailea joaten ez zenik ere ez zekien, ezta mahaia ez zela gai balorazio hori egiteko; aldiz, zuzendari nagusiaren jokabidea ahal-

bidetu zuen, eta haren kudeaketaren erantzukizuna hartu, kudeaketa hori osorik bere gain hartuz.

**3.2.-** Kontseilariak zuzendari nagusiaren proposamena onartu zuen; bistan da, bat zetorrelako lehiaketaren emaitzei buruz hark zituen planteamendu eta asmoekin. Gainera, berea bailitzan jarri zuen Gobernu Kontseiluaren aurrean, eta, beraz, bere gain hartu zituen arauz kanpo eta nahierara eginiko guztiak.

**3.3.-** Kontseilaria, departamentuko arduradun nagusia denez, lehiaketaren tramitazio, adjudikazio eta horien aurkako jarduketa guztien erantzule ere bada.

#### IV:- ONDORIOAK.

### **1.- Kontratazio mahaia, zuzendari nagusia eta Herrilan Kontseilariaren jarduketei buruzkoak, eta, halaber, adjudikazio prozedurari buruzkoak.**

**1.1.-** Balorazioa, kontratazio mahaia, zuzendari nagusia eta kontseilariaren jarduketei buruzkoa.

Kontratazio mahaia lana amaitu, eta zuzendari nagusiak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariari helarazitako txostenak subjektiboki interpretatu zituen, Iruñeko frekuentzien adjudikazioa jaso dutenen mesedetan interpretatu ere, mahaia aktan agertzen ziren hitzez hitzeko esaldiak; batzuei garrantzia eman zien, eta beste batzuk, berriz, alde batera utzi zituen; izan ere, zuzendari nagusiak alderantziz jarri nahi zuen kontratazio mahaia ezarritako hurrenkera, kuantifika zitezkeen gaiak baloratu ondoren ezarritakoa, hain zuzen.

Mahaia akta hitzez hitz hartu, eta ikus zitezkeen eskaintzak lehentasun hurrenkeran jarrita zeudela kuantifika zitezkeen eta ezin zitezkeen gaiak baloratu ondoren; ondotik, justifikaziorik gabe edo "akatsen" baten ondorioz, zera interpretatu da: hura ez zela eskaintzen hurrenkera, eskaintza-multzoen hurrenkera baizik.

Kontratazio mahaia lana amaitu ondoren, zuzendari nagusiak, mahai horretako buruak, inongo aholku edo txosten tekniko edo ekonomikorik gabe ezarri zituen balorazioa egiteko puntu-tarteak, zeinek adjudikazioen emaitza aurremugatzeko baitzuten; espedientean agertzen ez diren oinarri gabeko analisi subjektibo batzuk ere (TIR eta VAN) aipatzen ziren; eta proiektu teknikoak ez ziren zorrotz aztertu, horretarako ezagutza berezia behar baita; eta, halaber, irati batzuei eta besteei balorazio irizpide ezberdinak aplikatu zitzaizkien kontratazio mahaia aktaren eranski-

netan jasotako programazio-parrillak baloratzeko. Horrek guztiak ez du inongo justifikaziorik.

Balorazio akta eta zuzendari nagusiaren txostena konparatuta, uste dugu txosten hori ez zitzaiola lotu kontratazio mahaia hitzez hitzeko balorazioari, eta horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen irizpide puntuagarriak barematzera-koan.

Zuzendari nagusiak ez zituen kontuan hartu kontratazio mahaia balorazioak, eta kontratazio organoari aurkeztu zizkion ondorioak irizpide pertsonalak zituzten oinarri; zera pentsarazten du horrek: enpresa baten kaltetan enpresa bat mesedetzearen alde egin zela.

Kontratazio mahaia baldintza administratibo berezien orriko kontzeptuen zati bat besterik ez zuen baloratu.

Zuzendari nagusiak ezarritako puntu-tarteak erabakiorrak izan ziren adjudikaziorako; zuzendari nagusiak kontratazio mahaia berak ezarritako irizpideren bat zuzendu ere zuzendu zuen, eta hura bera zen kontratazio mahaia burua.

Euskarazko irati-emisioa adierazgarritzat jotako mugatik (% 30) behera puntuak emateko ezarri zen hainbanaketa ez da objektiboa, ez baita halakorik ondorioztatzen baldintza administratibo berezien orritik.

Oso gai teknikoei buruzko adjudikazioa izanda ere, kontratazio organoaren erabakiaren euskarri izanen zen inongo txostenik ez zen eskatu, ez kanpikorik ez inolakorik.

#### **1.2.- Adjudikazio irizpideen balorazioa.**

##### **1.2.1.- Orokorrean.**

Oso irizpide subjektiboak aplikatu ziren; erabakiak objektiboak izateko balizko azterlan teknikoak (VAN eta TIR) oinarri hartu baziren ere, ikerketa batzordeak ez du lortu azterlan horiek ikustea, eta, beraz, horrelakorik ez da existitzen.

Mahaia ez zuen zuzendari orokorraren VAN eta TIR txostenak ezagutzeko aukerarik izan, eta ezta horri buruzko txostenik emateko ere; halaber, zuzendari orokorrak berak eginiko puntu-tartearen berri ere ez zuen izan mahaia, adjudikazioa egin zen arte.

##### **1.2.2.- Bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasuna.**

Ez da argi jakiterik izan nork eta nola erabaki zuen bi puntuaziotan zatitzea bai bideragarritasun ekonomikoa bai lanbide gaitasuna (10-5; 9-6?); geroztik, Iruñeko hiru lehiakedei bideragarritasun ekonomikoan Ona puntu ematea justifikatu da, eta

hori egiteko irizpideak bitxiak, gutxienez, izan dira: zero ematen zaio inongo aurreikuspen ekonomikorik aurkeztu ez duenari nahiz, bazkide-harpideen ekarpenen bidez, hasieratik urteko baliabideen ehuneko 30 bermatu duenari.

Balorazio horiek erabakiorrak izan ziren, eta espedientean ez dauden azterlan batzuekin justifikatu nahi dira.

Bideragarritasun ekonomikoan hiru enpresak 0 puntuz baloratzeko ez dago irizpide objektiborik ezta teknikorik ere, eta, legearen arabera, lehiaketatik kanpo gelditu beharko zuten.

Bideragarritasun ekonomikoa eta lanbide gaitasuna 15 puntuz zeuden baloratuta, eta biak ala biak dira nahitaezkoak; bada, horri dagokionez, gorengo nahierakotasunez jokatu da: puntu-tarte batzuk ezarri, eta, kasu batzuetan, nahiz eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa 0 puntuz baloratu, 8-10 puntu-tartea ezarri da; horrela, bideragarritasun ekonomikoan Ona puntu jaso duten proiektuak aurkeztu dituzten enpresek eskuratu dute adjudikazioa.

#### 1.2.3.- Informazio-programak, eta abar.

Puntuatutako balioetan "akats" nabarmena gertatu delakoan gaude; bidezkoa litzateke, beraz, berriz puntuatzea, enpresak emandako irizpide guzti-guztiak erabiliz.

#### 1.2.4.- Gaitasun teknikoak.

Uste dugu emandako puntuazioa osagabea dela eta oinarri tekniko nahikorik ez duela.

**1.3.-** Ikerketa batzordean prozedurari buruz egin diren adierazpenen balorazioa.

Esan beharra dago kontraesan ugari izan direla ikerketa batzordean agertutako pertsonen artean. Bat aipatzearen, honako hau erakus dezakegu: batzuk esan dute "paperek esaten dutena" baloratu dela soilik; besteren batek, aldiz, datuak sinesgarriak ez zirela, eta baimena horregatik ez zela eman.

### **2.- Lehiaketaren osoko balorazioa.**

Aurretiaz hartutako erabakia ezarri nahia nabaritu da jokabideetan, eta joera izan da proposamenaren edukia eta horren balorazio objektiboarekin zerikusia ez zuten adjudikazioak bilatzea; helburu bakarra izan da proposamen jakin batzuk kanpoan utzi, eta beste batzuei adjudikatzea.

Lehiaketa, bada, formulismo huts bihurtu zen, legeak ezarritakoa bete eta prozesu itxura ematearren alde aurretik erabakita zegoenari; ez ziren objektiboki baloratu proposamenak eta bertan agertzen ziren egitate eta datuak, edo, egin zene-

an, nahieratasun osoz egin zen, eta erabakiak ez ziren arrazoitu ezta justifikatu ere, alde aurretik hartutakoak baitziren.

Erabakietan, erabateko objektibotasun falta antzeman da; erabakiak ez dira arrazoizkoak eta proportzionalak izan, inondik inora. Horrela, erabakia nahieratasunean oinarritu da, eta lehiaketa prozesuak zer izan behar duen kontuan hartzen badugu, erabakia hain da defendaezina eta izuna, ezen, azkenean, inongo justifikaziorik ez baita eman, ezta itxurak egiteko ere.

Ebazpenen oinarri nahiz arrazoitze faltak eta baita errekurtsua jarri dutenei espedientea ikusteko jarritako zailtasunak ere, agerian uzten dute jokabidearen nahierakotasuna. Horregatik, isilik egotea nahiago izan da argudioak ematea baino; erasogaitzago egin nahi ziren ebazpen horiek eta defentsarako berme gutxiago eman lehiakideei, eta, halaber, datu objektiborik ez zegoela eta jokabidea nahierakoa izan zela erakustea saihestu.

Jarduketak aztertu, eta zera ondorioztatzen da: ezarri ziren balio-tarteak eta eginiko azken proposamena arrazoituezinak eta arrazoigabeak direla, eta baita mahaiak balorazio osoa egiteko ahalmenik ez izatea, eta horren aurrean zuzendari orokorrak zuen "erreserba", halako moldez non erabakiaren epaile bihurtu baitzen, eta baloratu beharrekoak arrazoiz aintzat hartu gabe, justifikaezina den eta justifikatu ez duen erabakia eman baitzuen.

Azken erabakiak nahierakotasun eta makurkeriaren adierazle dira: justizia, arrazoia eta legeen aurkako egintzak sortarazi dituzte. Egintza horiek irizpide izan dute batzuei eman eta beste batzuei ukatzeko gogoia, nahiera eta aurreiritzia. Aldez aurretik hartutako erabaki politikoen estaldura formaltzat erabili da lehiaketa, eta modu arrazoigabe eta arrazoituezinean jokatu da; zuzenbide abusua gertatu da eta aginte desbideratzea, hautsi egin da lehiaketan parte hartu zuten herritarrak foru administrazioarenganako zuten uste ona eta bidezko konfiantza, administrazioa zuzena izanen zela espero baitzuten eta objektiboki eta arrazoiz jokatu zuela.

Aurreko kontratuei buruzko foru legeak ezartzen zuen lehiaketa sistema erabili zen, eta horrek gehiegizko eskumena eta justifikaziorik gabea ahalbidetu zuen frekuentzia modulatuak uhin metrikozko irrati-emisoreak adjudikatzerakoan.

Frekuentzia modulatuak uhin metrikozko irrati-emisoreen adjudikazioan, ez dira kontuan hartu konkurrentzia askearen printzipioa, segurtasun juridikoarena ezta berdintasun printzipioa ere.



Kontratazio mahaiko kide guztiak espresuki adierazi dute ez zutela inongo presiorik jaso, ezta jarraibiderik ere, lehiakide batzuk mesedetu edota kaltetzeko.

### **3.- Lehiaketaren emaitzari buruzko ondorioak.**

**3.1.-** Kontzesioa jaso duten irratien aldiari buruzko berraztertzea.

Irrati-emisoreak kontzesio administratibo bidez adjudikatzen direlarik, lehiakideen proposamen eta eskaintzak oinarri hartuta adjudikatu ere, adjudikazioa jaso dutenek legea betetzen duten aztertu behar da aldiari buruz; gainera, Nafarroako Gobernuak aztertu egin behar luke adjudikazioa jaso duten lehiakideek adierazi eta bere gain hartutako konpromiso guzti-guztien edukia betetzen den ala ez, eta, horrela, zaindu egiten litzateke kontzesioa egiteko oinarri izan zirenei iruzurrik egiten ote zaien.

1990ean emaniko baimenak ere berraztertu behar dira, eta, beharrezkoa bada, baita dagozkion neurri administratiboak hartu ere.

**3.2.-** Lehiaketa bide administratiboan berraztertzea

Zentzuzkoa eta zuzena litzateke Nafarroako Gobernuak bide administratiboan prozesua eta adjudikazio-aktak berraztertzea, eta adjudikazioaren gauzatzea etetea, kontuan hartuta lehiaketan

gertatu diren akatsak, eta nahierakotasun eta agintearen desbideratze nabarmenak.

### **4.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren eta Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiaren erantzukizun politikoari buruzko ondorioak.**

Batzordeak egin dituen lanek argi erakutsi dute lehiaketaren emaitzak alde aurretik erabakita zeudela; hala gertatu da, gutxienez, Zangozan, Iruñean eta Tuteran. Kontratazio organoari legearen arabera zegozkion eskumenen mugak gainditu ziren, eta objektibotasun itxurapean gainditu ere; itxura hori, hala ere, ez dator bat aztertutako datuekin: baimenak nahieratasunez eta norbaitek bideratuta eman ziren.

Espedientean, kontratazio organoaren erabakia ez da inondik inora arrazoitua agertzen; beraz, arauak kontratazio organoari esleitzen dion eskumena nahieratasun garbi bihurtu da kasu honetan.

Ikerketa batzordeak eginiko guztiaren ondotik, ikusi da aurreko oinarrietan jasotako arau kanpoko jokabideen zuzeneko erantzule direla Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria eta Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusia, zeinen jokabidea gaitzetsi eta arbuiatu egin behar baiten, eta kargua uztea eskatu behar zaie edo, bestela, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak kendu beharko ditu.

## **Frekuentzia modulatuko uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordearen irizpenaren eztabaida dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak bazterturiko boto partikularrak**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1999ko apirilaren 15ean, frekuentzia modulatuko uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko ikerketa batzordearen irizpena eztabaidatu zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 61.6 artikulua ezarritakoarekin bat, eztabaida horretan bazterturiko boto partikularrak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Bazterturiko boto partikularrak**

**Lehenengoa (UPN). Ondorioei.-** Kontratazio mahaiaren adierazpenetan ez da antzeman inongo kontraesan ezta ezadostasunik ere lehiaketa eta prozedurari dagokionez.

**Bigarrena (UPN) Ondorioei.-** Ikerketa batzordearen aurrean agertu diren legelari guztiak adierazi dute jarraitu den prozedura zuzena eta indarrean dagoen legediaren arabera izan dela.

**Hirugarrena (UPN) Ondorioei.-** Frogatu da eman diren puntuazioak luze eta zabal arrazoituta daudela, eta baldintza administratibo berezien eta ustiapenaren orrian zehaztutako eskaintza eta irizpideen arabera direla; ez da kontraesanik aurkitu horri dagokionez.

**Laugarrena (UPN) Ondorioei.-** Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiari nahiz Herri-lan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariari egin zaizkien esku sartze salaketak oinarritzeko frogarik ez da ekarri.

**Bosgarrena (UPN) Ondorioei.-** Lehiakide bakarra izan da lehiaketaren emaitzarekin ados ez zegoena: Iruñeko Komunikabideak. Eta horixe izan da batzordea sortzeko arrazoia. Beraz, Parlamentuak exekutiboa kontrolatzeko duen tresneta-bat interes pribatuak defendatzeko erabili da.

**Seigarrena (UPN) Ondorioei.-** Argi geratu da garrantzia zuena lehiaketaren emaitza zela eta ez lehiaketaren legezkotasuna; hori frogatzeko, ikusi besterik ez dago alderdi politikoek espedientea ezagutu aurretik kritikatu zutela emaitza, eta, alderdi horietako bat ausartu ere ausartu zela lehiaketa deuseztatu eta Iruñeko Komunikabideak-i adjudikatu behar zitzaizola esatera.

**Zazpigarrena (UPN) Ondorioei.-** Harrigarria da batzorde ikerketa batean, non kideen sinesgarritasuna oso dagoen lotuta duten inpartzialtasunarekin, interes partikularrak zituen jendeak parte hartu izana. Frogatuta geratu denez, ikerketa batzordearen kideetako bat Iruñeko Komunikabideak-eko bazkide fundatzailea ere bada aldi berean, hau da, epaile eta parte aritu da.

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleek euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan**

*ATZERA BIDALITAKO MOZIOA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleek euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan". Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1999ko apirilaren 19an egin-

dako bilkuran, mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1999ko apirilaren 19ko 30 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**F saila:**  
**GALDERAK**

## Etxebizitza eta birgaitzearen arloetako aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak etxebizitza eta birgaitzearen arloetako aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Etxebizitza eta birgaitzearen arloetako aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- “Etxebizitzaren arloko jarduketarako Dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailari dagokionez, zein izan den exekutaturikoaren banakatzea.

1997an, etxebizitzak erosteko dirulaguntzak guztira 2.641.973.851 pta.koak izan dira, honela banakatuta:

Erosi dute	Zenbatekoa (Pta.)
B.O.E. Araubide berezia	1.488.962.416
B.O.E. Araubide orokorra	992.478.666
Etxebizitza askea, tasaturiko prezioan	160.532.769
<b>Guztira</b>	<b>2.641.973.851</b>

Aurrekontu-lerroaren exekuzio osoa azaldurik dago erantzun honen amaieran.

2.- Birgaitzeari dagokionean, exekutaturikoaren banakatzea zein den.

Iaz, etxea zaharberritu duten pertsoneri emandako dirulaguntzak guztira 816.838.023 pta.koak izan ziren. Kopuru horri 1.695.998 pta. gehitu behar zaizkio, eraisketei dirulaguntza-kontzeptupean.

3.- Alokairuei dagokienean exekutaturikoaren banakatzea zein den eta maizter-dirulaguntzako jarduketetan erabilitako kontusailaren xehetasunak honako hauetan: B.O.E.-Araubide Berezia, B.O.E.-Araubide Orokorra, -Bestelakoak.

Gai honi dagokionez, iaz alokairu-kontzeptu gisan emandako dirulaguntzak 764.480.605 pta.koak izan direla argitu behar da. Gogoan ere izan behar da, ezen, maizterren errentarako ematen diren dirulaguntza bakarrak, babes ofizialeko etxebizitzari (Araubide Berezia) dagozkiela. Kontzeptu horren pean, onuradunak guztira 440 maizter izan dira, mota honetako etxebizitza-sustapean okupatzen dituztenak:

Promotorea	Zenbatekoa
VINSA	138.839.457
COGREMASA	7.273.260
GRUPO ESTEBAN LIZARRAGA	8.762.153
P. SANTA LUCIA	3.885.019
TUTERAKO UDALA	1.656.306
TAFALLA UDALA	1.656.306
<b>Guztira</b>	<b>161.757.954</b>

4.- Maileguen subsidiaziorako kontusailari dagokionean, jakin nahi da kontzeptu honetan guztira zenbat esleitu den 1997an, interes-tasa eta diruz lagunduriko jarduketak direla-eta sustatzaileek eskuratutako kopurua (horrelakorik balego).

Maileguen subsidiaziorako emandako kopurua, 1997an 2.693.842.022 pta.koa izan zela esan behar da.

Finantzaketa-hitzarmenen interes-tasak honako hauek izan dira:

T.A.E. korritu tasa %			
Urtea	Berrikusi gabe	Berrikusia	Oharrak
1990	13		MOPU berrikusi gabe
1991	12		MOPU berrikusi gabe
1992	12,96	6,22	1997an berrikusia
1993	13,25		1998an berrikusia
	12,40		1998an berrikusia
1994	9,96		1999an berrikusteko

1995	11	2000an berrikusteko
1996	8,75	1999an berrikusteko
1997	5,51	2000an berrikusteko

Sustatzaileen arabeko banakapenik ez dago. B.O.E.-Alokairu-Araubidea eta B.O.E.-Araubide Berezia egin zutenek baino ez daukate subsidiaziorako eskubidea, eta azken horiek eraikina eraiki artean, soil-soilik.

Gutzizko zenbatekoari dagokionez, hori ondoko taulan azalduko dago:

99001 lerroaren exekuzioa 1997an (Dirulaguntzak eta subsidioak)

AZPILERROA	ORDAINDUTA	AURREKONTUAN	EXEKUZIOA %
Erosteke dirulaguntza	2.641.973.851		
Birgaitzeko dirulaguntza	816.838.023		
Alokatzeko dirulaguntza	764.480.605		
Maileguen subsidiazioa	2.693.842.022		
Eraisteko dirulaguntza	1.695.988		
<b>Guztira</b>	<b>6.918.830.499</b>	<b>6.924.000.000</b>	<b>%99,93</b>

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 9ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. Esleitzeko erabili den sistema zergatik izan da prozedura negoziatua, publizitate eta lehiaketa gabea?

Ebazpen hau, ondoko arrazoiengatik hartu da:

a) Vianako Printzea Erakundeko Ondare Historikoaren Zerbitzuak, "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresak Indietako Artxiborako landutako sistema informatikoa eskuratzeko beharra adierazi du Nafarroako Artxibo Nagusian ezartzeko. Izan ere, sistema hau estatuko artxiboetan orokorrean aplikatu daiteke, eta artxibo hauek eskatutako funtzionaltasun guztiak betetzen ditu.

b) Informazio Sistemek ondoko hau proposatu dute: "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresari esleitzea, prozedura negoziatua, eta publizitate eta lehiaketa gabearen bidez, enpresa hau izan baitzen "Archidoc" eta "Archiges" datu-baseko eta digitalizazioko programa landu zuena. Programa hauek, artxiboetarako standard bihurtzeaz gain, enpresa honek bakarrik jartzen ditu salgai.

2. Beste enpresaren bati aurkeztu al zaizkio esleipen hau lortzeko baldintzak?

Aurreko puntuaren erantzunean adierazi bezala, "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresak, "Archidoc" eta "Archiges" datu-baseko eta digitalizazioko programa landu du, eta enpresa honek bakarrik jartzen du salgai.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erreglamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

**Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 1999ko apirilaren 21ekoa. Haren bidez, Iruñeko entzutegia izandako eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretako hurrengo zereginak esleitzen dira: aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza tekniko eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa**

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 97. artikuluan xedatua betez, aditzera ematen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1999ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren bidez ondoko kontratua esleitu dela:

Kontratuaren xedea: Iruñeko entzutegia izandako eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obretan aparejadore edo arkitekto teknikoei dagokien zuzendaritza tekniko eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa.

Esleipena egiteko modu eta prozedura: lehieketa, prozedura irekia.

Esleipenaren prezioa:

Prezioa, guztira: 20.822.000 pta  
(gastuak eta BEZ barne)

Azalpena: 19.279.629 pta,  
zuzendaritza tekniko.

1.542.371 pta,  
segurtasunaren eta osasunaren  
koordinazioa.

Esleipen hartzaileak: Francisco Sisniega Sánchez, Pedro Legarreta Nuin, José María Zuazu Cristo eta Daviz Beorlegui Cruz jaunek osaturiko taldea.

Iruñean, 1999ko apirilaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--